



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2022ko LEHENENGO LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2022ko lehenengo lauhilekoan elikagaiei buruzko 1368 jakinarazpen izan dira. Horietatik 374 alertak izan dira (%27,5), 420 informazio-jakinazpenak (%30,5) eta 574 mugan egin diren ukapenak (%42).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **43,5a Turkiakoak** dira eta %**23ak Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **18,5**arekin. Afrikaren kasuan, **Egipto %35,5**arekin eta azkenik, **Amerikaren kasuan Brasil** da jakinarazpen gehien sortu duenak, %**30**arekin.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2022ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1368 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Hondakinak	% 34
Iruzurrak	% 18
Kutsadura biologikoa	% 17,5
Mikotoxinak/biotoxinak	% 15,5
Kutsadura kimikoa	% 6,5
Metal astunak	% 3,5
Kutsadura fisikoa	% 2,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 2,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 87an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 39a eragin du. Kasu gehienetan (% 39a) kakahuetea **EGIPTO**tik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %64a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 82,5an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %32ko kasuetan, %85ko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %15,5a *Salmonella enteritidis*i dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 96a eta %82,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %2a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan lau kasu besterik ez dira izan lauhileko guztian zehar

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes*ak jakinarazpenen %16a eragin ditu, esne gordinaz egindako **GAZTAK** %29an inplikaturik egonda eta **Frantzia** jatorria izanik ia %45,5ean.

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %96a dira eta medikamentuak, %4a. Pestiziden kasuan, **KLORPIRIFOS** da protagonista nagusia %40an, gehien bat **ZITRIKO** desberdinetan eta %67ko kasuetan eta **TURKIA**koak %90ean.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK 32%ak** (79 kasu), suposatu dute

